

**EAEko HEZKUNTZA ITUNA:
LABen PROPOSAMENA**

2018ko martxo



www.lab.eus

AURKIBIDEA

0. IRAKURKETA OROKORRA	5
Nondik gatzoz	5
LABen ibilbidea Heziberriren baitan	6
1. HEZKUNTZAREN GAINEKO ITUNA: LABEN BALORAZIO LABURRA	8
2. ETA ORAIN ZER?	10
3. HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA: HAUSNARKETA SAKONA ETA PROPOSAMEN ZEHATZAK	12
“Sarrera: Euskadiko Hezkuntzaren aldeko Akordioa”	12
LAB-en Hezkuntza Akordio baterako ardatzak eta neurriak.....	14
“Hezkuntza sistemaren modernizazioa”	15
Neurriak	17
“Bizikidetza”	18
Bizikidetza eta inklusioa bermatzeko neurriak	20
“Hizkuntzak”	21
LABek proposatutako neurriak	24
“Ebaluazioa”	24
Alternatiba: ebaluazioa hezitzailea dekalogoan	26
Ikastetxeen autonomia	27
ERREFERENTZIAZKO TXOSTENAK	30

0. IRAKURKETA OROKORRA

Ezein dokumentu irakurtzeko orduan bi modutan egin daiteke: batetik, dokumentua literalki, testuingurutik kanpo, irakurtzea, hemen garrantzia edukiak izango luke; bestetik, dokumentua testuinguratuta aurkeztea, noiz sortzen den, zein baldintzetan, zein helburu, intentziorekin. Guk bigarren irakurketa zabal horretatik abiatzea lehenesten dugu. Beraz, dokumentu honen helburua ez da soilik eskuartean dugun proposamenak finkatzen dituen koordinadetan ekarpen zehatzak egitea dokumentua bera hobetzeko asmotan. Afera ez baita soilik dokumentuak jasotzen dituen ideia zehatzak, irakurketa politiko-pedagogikoa egitea ere beharrezkoa da.

Nondik gatzoz

EAEko Hezkuntza Sailak plazaratu duen akordiorako proposamenaren iturburua Heziberri planean dago. Heziberri 2020 EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hezkuntza-sistema hobetzeko aurkeztutako plana da. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila Heziberri 2020 planarekin 2013ko irailean hasi zen lanean. Lehenengo proiektua, 2014ko otsailaren amaieran bukatu zen eta bertan eragile desberdinek: unibertsitateek, guraso elkarteek, hezkuntza publikoko zuzendari elkarteak, itunpeko ikastetxe patronalak, eta hainbat adituk, besteak beste, parte hartu zuten. Bigarren proiektua, aurrez aipatutako eragileez gain, sindikatuekin eta alderdi politikoekin ere jorratu zen. Dekretuak 2015eko otsailaren 18an aurkeztu ziren, eta tramitazio fasean daude. Orain hasi da hirugarren proiektua, Euskal Hezkuntza Legerantz hurbiltzeko urratsak ematea.

Hiru egitasmok osatzen dute Heziberri 2020 plana:

- Lehen egitasmoa: hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa.
- Bigarren egitasmoa: Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum dekretuak.
- Hirugarren egitasmoa: Euskal Hezkuntza Legerantz hurbiltzeko urratsak ematea.

Atzera begiratzuz hemeroteketara jotzen badugu, konturatuko gara Hezkuntza Sailak proposamena testuinguru zehatz baten baitan egiten duela: LOMCE legea onartua eta Euskal Herriko eragileen arteko elkarlanaren testuinguruan, 2013ko urriak 12ko manifestazioa. Heziberri bera, LOMCEri aurre egiteko tresna gisa aurkeztu zuen sailak, gizartean zegoen kezka eta haserrea baretu nahian: "El objetivo del Gobierno Vasco es una "educación de calidad y de excelencia" y ha asegurado que "avanzamos hacia el futuro, hacia Europa, no hacia donde nos quiere llevar la Lomce". Ha subrayado la importancia del consenso en ámbito educativo con el Plan Heziberri 2020 con el foco puesto en los alumnos y las alumnas." 2014ko martxoak 14. http://www.irekia.euskadi.eus/es/news/18318-cristina-uriarte-pide-tranquilidad-respecto-lomce-afirma-que-proximo-curso-esta-organizado?criterio_id=1003977&track=1

"Tenemos la herramienta idónea para lograr los resultados que hemos obtenido y los que obtendremos: el Sistema Educativo Vasco. Un sistema que defenderemos ante la LOMCE, cueste lo que cueste. No lo dudéis". Irekia 2013ko ekainak 16.

Alta, Heziberri, LOMCEri aurre egiteko tresna izan behar zuena, LOMCE aplikatzeko tresna bilakatu da. Zergatik?

LABen ibilbidea Heziberriren baitan

Ibilbide guztian zehar LABek paper aktiboa izan du, gaia landuz eta proposamenak eginaz. Segidan, sakon ez bada ere, urrats bakoitzean LABk izandako posizioa adierazten dugu, hiru irizpideen baitan:

- Irizpide pedagogikoa. Eraldaketa pedagogikoa ikuspegi zabalean ulerturik: ikaslea erdigunean, pertsonaren ulermena, metodologia, baliabideak...
- Irizpide politikoa: ezein proposamen, hausnarketa burujabetzatik egin behar da, burujabetza helburu. Ez dugu onartuko egungo markoa betikotzeko ezein proposamen.
- Irizpide demokratikoa: ezein proposamen, hausnarketa ariketa kolektiboa eta demokratikoa izan behar da. Herri ariketa izan behar da.

Hiru irizpide hauek helburu bat dute oinarri: hezkuntza sistema propioaren bidea urratu behar dute.

Sailak Heziberriren baitan proposatutako urratsetan LABen posizioa eta lanketa:

1. urratsa: hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa.

Ikaslearen irteera profila zehaztea. Lanketa honetara sindikatuak ez ginen parte hartzera gonbidatuak izan. Metodologia eta eragile batzuei jarritako betoa kritikatu genuen. Alta, dokumentua ideia orokor eta norabide gisa, modu kritikoan bada ere, onartu egin genuen.

2. urratsa: Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum dekretuak.

Lehenengo urratsa lortzeko ibilbidea izan behar zuena, LOMCE aplikatzeko tresna bilakatu zen. LOMCEren neurri gogorrenak barneratu ziren.

LABek ekarpen fasean parte hartzeko aukera izan zuen eta Sailarekin bizpahiru bilera egin genituen. LABek modu eraikitzaile baten parte hartu zuen urrats honetan. Jakinda Sailak aurkeztutako proposamena LOMCEtik eratorria zela, gure ekarpenak curriculum dekretu horiek Euskal Curriculumaren norabidean kokatzea izan ziren, horretarako lanketa sakona egin zen eta kontraproposamena bideratu genion sailari. Behin betiko dokumentua plazaratu zuten, abenduaren 22ko 236/2015 dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri zuena.

LABen ondorioa da proposatutako ekarpenak ez zirela aintzat hartu. Beraz, Heziberriren baitan proposatutako curriculum dekretuen bidez, Euskal kulturaren transmisioa garatu gabe geratu zen. Euskarari dagokionez, bere normalizatorako aurrera urratsak ematea baino egungo sistema mantentzearen aldeko apustua egin zen, kontrol neurriak LOMCEren baitan gelditu ziren... Azken batean, inposizioei heltzeko asmotan edo nahian, LOMCEren elementu batzuk ez aplikatzeko zirrikitu batzuk uzten ditu, eta egungo hezkuntza sistema mantentzea ahalbideratu du Heziberrik.

Gure iritzia sozializatzeko artikulu bat idatzi genuen, iruzurra salatuz: "Heziberri: ezerberri hezkuntza propioaren bidean", Garan, 2015/02/24 <https://www.naiz.eus/es/iritzia/articulos/heziberri-ezerberri-hezkuntza-propioarenbidean>

3. urratsa: akordioa eta legea. Hirugarren egitasmoa: Euskal Hezkuntza Legerantz hurbiltzeko urratsak ematea.

Heziberri plana borobiltzeko, Sailak lege bat egitea proposatu zuen, aurretiko lan guztiak zein beste batzuk barnebilduko dituen. Alta, legean sartu baino lehen akordio bat egitea proposatzen du, orain lantzen ari garena, 5 gakoren baitan, Sailaren hitzetan oinarritukoak direnak dugun hezkuntza sistema hobetu eta modernizatzeko. Ondokoa da LABek Hezkuntzaren Aldeko Itunaren gainean egiten duen irakurketaren laburpena, publiko ere egingo duguna.

1. HEZKUNTZAREN GAINEN ITUNA:

LAB-EN BALORAZIO LABURRA

“Hezkuntza da mundua eraldatzeko erabili dezakezun armarik onena”. LABek Nelson Mandelaren betaurreko eraldatzaileak jantzita begiratu dio Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Ituna egiteko aurkeztutako oinarriari. LABen ustez, zoritxarrez, ez du balio herri gisa ditugun erroka sozial eta nazionalari aurre egiteko; ez du balio bizi dugun menpekotasunetik askatzeko. EAerako kalitatezko hezkuntza euskalduna lortzeko, egun dagoenaren erroka aldaketa bat behar da, eta Jaurlaritzak planteatu duenak partxeotik du gehiago.

Baga. Metodologia eta kanpoan utzitakoa. Eusko Jaurlaritzaren neurriari egindako prozesua da eta helburu mediatikoak lehenesten dituelakoan gaude. Hamaika adibideren arteko bat dugu hau, prozesua hasi bezain azkar, ahoz eta gutun bidez, Hezkuntza Sailari proposamenean ageri ez diren bi gairen gaineko hausnarketa sakona egitea eskatu genion: curriculum eta hezkidetzak. Batetik, gutunari ez diote erantzunik eman. Bestetik, edukiei dagokienez, proposatutako bi gaiak ez dira landu ere egin. Etorkizuneko zein hezkuntza sistema eraikiko dugu Euskal Curriculumik gabe? Nola eraldatuko dugu jendarte matxista hezkuntza hezkidetzakilea ez bada lehentasuna?

Biga. Espainiaren menpekotasuna. Proposamena Espainiako legediarekin bat etortzeko pentsatua dago. LAB sindikatuak adierazi nahi du, oso kezkatuta gaudela Madril izaera zentralista indartzen ari delako, 155. Artikulua Hezkuntzaren bidez inposatzen ari delako. Katalunian murgiltze ereduak desagitzen saiatzen ari diren bezala, Hego Euskal Herriko eskoletan zer eta nola ikasi behar den kontrolatzen ari dira Espainiar Curriculum eta errebalidatze berriak inposatuz, besteak beste. Zoritxarrez, Jaurlaritzaren proposamenak Madriletik datozen inposaketak onartzen ditu, Curriculum espainiarrez gain, errebalidatze eta selektibitateak onartzen ditu eta hauek gure ikastetxeetan inposatzen saiatzen ari da. LOMCE eta Espainiako Hezkuntza Legearen onarpenarekin, ezinezkoa den enkajea bilatzen du. Ezinezkoa diogu, planteatutako proposamena eskasa izanik ere, ez delako inposatutako markoan sartzen. Adibide bat ematearren, nola eraiki proposamenean ageri den Ebaluazio Agentzia Propioa Espainiako errebalidatze eta selektibitateak inposatzen diren bitartean? Espainia ez da hezkuntzan inongo herrialderentzat eredu ona, gurea bezalako herri zapalduarentzat are gutxiago. Hezkuntzan eskumen guztiak, burujabetza behar dugu kalitatezko hezkuntza sistema publiko eta herritarra lortzeko.

Higa. Hizkuntza. “Nire hizkuntzak zure estatuaren oinarriak astintzen baditu, horrek esan nahi du zure estatua, ziur asko, nire lurrean eraiki duzula”. Musa Anter, idazle kurdua. LABen ustez, hizkuntza eskubideak bermatzeko, ikasle guztiak euskalduntzeko, hezkuntza euskalduna lortzea ezinbestekoa da. Zentzu honetan, begi onez ikusten dugu, derrigorrezko hezkuntza bukatzean B2 maila eskuratzea ezartzea helburu gisa. Baina nola lortu zaharra den helburu hau, hizkuntza ereduaren politika gainditu gabe? Helburua lortzeko neurri zehatz bat behar da, murgiltze ereduak ezartzea.

Laga. Inklusioa eta baliabideak. Dokumentuak, egoeraren ardura nagusia behin eta berriz irakasleen gainean jartzen du, eta hori ez da onargarria. Hezkuntzak EAEn izan duen gainbeheraren ardura nagusia administrazioarena da, ez delako hezkuntzaren aldeko benetako apusturik egiten, ez lege aldetik, ez formakuntza, ezta baliabideen aldetik ere. Porlanean eta bankuen zorrak ordaintzean oinarritzen den politikaren ondorioz, BPGren %3,8a bakarrik bideratzen du hezkuntzara Jaurlaritzak. Ondorioz, Errumania soilik du EAEn

atzetik Europako Hezkuntzako inbertsioan. Hala, aberats eta pobreen arteko arrakala handitzen ari da, segregazio egoerak areagotu eta larriagotzen ari diren bitartean eta Hezkuntza Sailak ez du neurri eraginkorrik proposatzen egoera konpontzeko. Are gehiago, eskubiaren hezkuntza politikaren parte da zatiketak areagotzea, aberatsen seme-alabentzat pentsatutako ikastetxeak eta pobreentzako eskolak egotea ongi plangintzatutako politika baten ondorio da. Aniztasuna baloreari jarri behar dela esatea polita gelditzen da, baina, neurririk gabeko hitz politikak hitz ustelak dira, segregazioa gainditzeko neurri inklusibo ausartak urgenteak dira.

Boga. Autonomia eta parte hartzea. Jaurlaritzak ikastetxeen autonomia faltaren inguruan egindako autokritika, norabide onean doala uste dugu. Hala, ikastetxeei autonomia gehiago ematea begi onez ikusten dugu, kudeaketan, proiektu pedagogikoan eta baita irakasleen perfilak eskatu zein kontratazioak egiteko ere (gardentasunez, komunitatearen parte hartzearekin eta administrazioaren kontrolarekin). Baina, autonomian sakontzea eta baliabideak eskaintzea (bereziki egoera ahulenean dauden ikastetxeei) txanpon beraren bi aldeak izan behar dira, bestela, ikastetxeen arteko arrakalak handitzeko arriskua dago. Era berean, autonomian sakontzea ez da eredu gerentzia zaletik etorriko, kontrara, hezkuntza komunitatearen parte hartzean oinarritu behar dela deritzogu. Herri Hezitzaileen norabidean bidea eginez, hezkuntza komunitatea eta herria ikastetxeko hezkuntza proiektuan inplikatu.

Beraz, LABek EAEko Hezkuntza Sailari ematen dion erantzuna argia da: ez dugu proposamena babesten. Hezkuntza Ituna beharrezkoa dela pentsatzen dugu, horregatik mahai gainean dugun abiapuntua eraldatzeko borrokan jarraituko dugu. LABek ez du etsiko Hezkuntza Komunitatearengan konfiantza osoa dugulako. Ehunka dira dagoeneko, Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema eraikitzeko aldaketa sakonak egiten ari diren ikastetxeak, eta milaka horretan ari diren ikasle, guraso, herritar eta hezkuntzako langileak. LAB horien guztien alboan egongo da, behetik gora eraldaketa bultzatuz, hezkuntza burujabea iruten.

2. ETA ORAIN ZER?

"Hezkuntza estatu afera da, ziur aski garrantzitsuenetariko bat eta, beraz, hurrengo belaunaldiei begira diseinatu behar da eta ez hurrengo hauteskunderi begira". W. Churchill.

Herri gisa arituz, erantzukizunez jokatzea dagokigu guztioi. Izan ere, euskal hezkuntzaren egoera larria da oso: murrizketak, prekarietatea, euskara jakin gabe eskolatik atera diren eta ateratzen diren milaka gazte, segregazioak, sistema pribatu-elitistari bultzada publikoa, desnazionalizazioa, euskal nortasunean izandako galerak, frantses nahiz espainol gisa hezten gaituzten curriculum arrotzak, pertsona gisa garatzen ez gaituzten pedagogia ereduak, inolako parte hartzerik gabeko hezkuntza, patriarkatua eta kapitalismoa iraunarazten duen eredu... ez al da zerrenda luzeegia? Eta honen guztiaren muinean gako bat dago, menpekotasuna. Hori horrela, garrantzitsua da ulertzea Euskal Herriak ez duela sekula izan bere hezkuntza sistema ereduaren gaineko erabakiak hartzeko eskubiderik, ez eta hura egituratzeko eskumenik ere. Eta datozen hezkuntza erreformek, zein NFK edota EAEko administrazioetatik datozen bertsiok, ezinbestean, menpekotasunaren zulora garamatzatela. Horregatik, abiatu behar dugu prozesu independentista.

Aitzitik, guk ez dugu Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemen erreproduzio hutsa egin nahi. Hezkuntza sistema bat antolatu nahi dugu, baina hezkuntza eskubideetan oinarrituta eta ez estatuaren botere soilean oinarrituta. Hau da, hezkuntza arautzeko aukera nahi dugu, hezkuntza beste modu batean arautu nahi dugulako. Hezkuntza euskalduna nahi dugu, frantsesek hezkuntza frantsesa eta espainiarrek hezkuntza espainiarra duten bezala. Baina gainera, hezkuntza euskalduna beste modu batean antolatu nahi dugu. Betikotuak diruditen hainbat korapilo askatu eta hezkuntza propioaren bidean urrats kualitatiboak egiteko tenorean gaude. Gaur hartu beharko ditugun erabakiak etorkizun hurbil batean funtsezkoak izango direlako. Hortik abiatuta, zer egin dezakegu? Ba al dugu alternatibarik gurean? Indarrak? Nondik hasi? Baina nola egin? Berriz ere, nondik hasi? Bada pentsatzen duenik NFK edota EAEko hezkuntza ordezkarietzako saloietan eragile batzuen artean egin daitezkeen balizko legeek (koba)zuloatik aterako gaituztela. Baina serioski, norbaitek pentsatzen du hezkuntza komunitate guztiaren parte hartzerik gabe eta hezkuntza sailtako lau pareten artean egin daitezkeen balizko analisia, elkarlan edota legeek eramango gaituztela hezkuntza sistema propiorantz?

Alta, hezkuntza herri proiektu gisa ulertzen dugu guk. Afrikan esaera batek dioen moduan "haur bat hezteko tribu guztia behar delako". Eta ideia horri jarraiki, tribuak batu, entzun, berba egin, hausnartu eta adostasunak bildu behar dituelakoan gaude, herri akordio honen ostean etorri beharko lirakeke balizko akordio instituzionalak, herriak adostu duena lege bihurtzeko. Tribuak akordioa behar du. Euskal Herriak hezkuntzan ere herri akordioa iruten hasi behar du. Zentzu honetan, Hik-Hasik aurkeztu duen proposamena abiapuntu egokia iruditzen zaigu eztabaidari ekiteko: "Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: Hezkuntza hobetzeko gakoak" (http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2018/03/1520000838-Hezkuntza-proposamena.pdf)

Jakitun gara horrelako ariketa erraldoi batek dituen zailtasunez. Gure herriak behar duen hezkuntzari buruzko eztabaida soziala bultzatu nahi dugu; Euskal Herriatik Euskal Herrirakoa, ezer inposatu gabe, errespetuan oinarrituta ahalik eta eztabaida zabalena sortu nahi dugu.



Erakunde edo hezkuntza eragile bakoitzak izango du bere hezkuntza proiektua, bere bidea, baina akordioaren bertutea eta indarrak sorburu desberdinak norabide berean jartzean datza. Egiari zor, nagusiki, bi bide daude: egungo egoera betikotzen jarraitzen uztea, ala herri gisa hausnarketa komuna egin eta Euskal Herriko herritarren beharretara egokitzeko jarrera aktiboa izatea. Kobazulotik eguzkitara ateratzea, prozesu independentista abiatzea, finean. Bestalde, jakitun gara hastapeneko urratsetan gaudela, eta hauek ondo bideratu eta garatzea ezinbestekoa izango dela bide honek duen potentzial osoa aktibatu nahi badugu. Horrela tribuak du berba!

3. HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA: HAUSNARKETA SAKONA ETA PROPOSAMEN ZEHATZAK

“SARRERA: EUSKADIKO HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA”

Hezkuntza Sailaren proposamenaren atal honetan adierazpen instituzional bat dago, keinu ezberdinak egiten ditu baita aitortza batzuk ere, baina errealitatea aintzat hartzen ez duelakoan gaude. LABentzat badira zenbait puntu adierazgarri:

- **Proposamen partidista.** Proposamena herri gisa irudikatu beharrean gobernuarekin eta honenbestez, EAJrekin lotzen du, Cristina Uriarte eta Iñigo Urkulluren sinadura (Hezkuntza Sailburuarena esplizituki) duen dokumentua da, kutsu alderdikoia eman zaio beraz. LABek, Heziberriren amaiera fasean, gure jarrera azaldu genuenean argi ohararazi genuen: **herri akordioa behar genuela non herri eragile, instituzio eta herritar orok parte hartuko lukeen.**
- **Hezkuntzaren, heziketaren ikuspegi partziala.** Hezkuntza eta eskolaren arteko identifikazio zuzena egiten da. Non dago hezkuntza ez-formala? Non informala? Herri hezitzailearen ikuspegiaren inolako arrastorik ez dago. Ikasleen hezte prozesua eskola barrutira isolatzen du, testuingurua ia erabat desagertzen delarik. Joera pedagogiko berriei tartea egitea dagokionean, sarrera hau erabat aseptikoa iruditzen zaigu. Ez dago eraldaketarako anbiziorik. Tonucci bezalako pedagogoak buruan, haurrak erdigunean, hezkuntza komunitate osoa eta jendartea hezkuntzan inplikatu duen Herri Hezitzaileak bezalako proposamenek ez dute tarterik hemen, nahiz eta herriz herri hedatzen ari diren horrelako esperientziak.
- **Publikotasunaren eztabaida baztertu.** Zentzu berean, zerbitzu eta politika publikoetaz hausnarketa egitea eragozten du. Etorkizuneko hezkuntza sistemaz, belaunaldi oso batentzako hezkuntzaz hitz egiten da sarrera honetan. Gaur eguneko publikotasun ereduarekin konformatu behar gara? Gure ustez, publikotasun berri bat behar dugu, burujabetzan oinarritua, askoz finantziazio hobea izango duena eta hezkuntza eskubideak bermatzen dituzten eskola edo ikastetxe sareak (Ikastolak adibidez) barne biltzeko bokazioa duena.
- **Paradigma aldaketarik ez.** Hezkuntzaren ikuspegi zehatz bat aldarrikatzen da, izan ere akordioaren oinarriak eta beharra paradigma berrira egokitzeko helburuarekin justifikatzen dute. Hitzez-hitz: “hezkuntza sistemaren modernizazioan aurrera egin behar da, aldatzen den gizartera eta hezkuntzaren paradigma berrira egokitzeko...” edota “aurrera egiteko eta aldaketetara egokitzeko...”. Zein paradigma? Egokitu? Zein aldaketa? Hemen ez dago aldaketarik, hemen sakontze bat dago, morrontza alegia. LABek, hezkuntza komunitatearen gehiengoak bezala, gaur egungo egoeraren irakurketa oso negatiboa egiten du, erroko aldaketa beharrezkoa da, EAEko hezkuntza eraldatzeko momentua da eta ez sistema kapitalistaren behar berrietara, Espainiako erreforma zentralistetara egokitu edo eguneratzekoa. Paradigma aldaketak, gainera, barrutik kanpora egin ohi dira. Paradigma aldaketa

gizarteak bultzatzen ditu, kasu honetan bereziki hezkuntza komunitateak. Ez da ezer emana. Ez bada horrela, egokitzapenez hitz egin dezakegu baina ez paradigma aldatetaz.

- **Menpekotasun politikoa ezkutatu eta onartu.** Errealitateaz egiten duen irakurketak kezkatzen gaitu. Eraikitzen duen irakurketa horretatik garatzen duelako planteamendua. Deskribatzen duen errealitatea nongoa da? Edozein tokirako baliagarria izan daiteke, LABentzat Euskal Herriak izan beharko luke ardatz.

Aldaketa globalizataileak nondik etorri diren zehaztu beharko luke: Europa 2020, LOMCE. LOGSE, Bologna... Ematen du aldaketa oro positiboa dela eta hona iristeko zerbait espirituala gertatu dela... Eta ez da horrela. Aldaketa batzuk inposaketen ondorioz gertatu dira. Inposaketak ikuspegi sozialetik eta ikuspegi nazionaletik.

Euskal Herrian ditugun hezkuntza sistemak Madrilen eta Parisen erabakiak dira neurri handi batean. Ikuspegi neoliberala eta neokoloniala dute. Hau da, kapitalismoa birproduzitzeko eta langile espainol/frantses txintxoak hezteko pentsatuta dagoen hezkuntza sistema da EAEkoa. Ez guk bakarrik esaten dugulako, erreformaren arduradunek, Wertek adibidez argi esan zuen: "para españolizar al alumnado": Besteak beste krisialdiaren aitzakapean aplikatutako murrizketak, Heziberri, Lomce... Larria da guzti honekin ez ikusiarena egitea.

Hezkuntza Sailak eta Eusko Jaurlaritzak ez dute onartzen arazo larri bat dugula: Espainiak erabakitzen ditu EAEko hezkuntzaren zutabe nagusiak. Gainera, erreforma guztiak zentralizazio eta uniformizazioan sakontzeko egiten ari dira. Burujabetza, autogobernua hezkuntzan, konpetentzia guztiak behar ditugu. Errealitate honen aurrean ezin da ostrukarena egin.

- **Hezkuntzan inbertsiorik ez.** Asmo polit eta ponpoxoak azaltzen ditu baina gero ez dator bat adibidez, aurrekontuetan hezkuntzan egiten den inbertsioarekin. Hots, hezkuntza eraldatzea apustu estrategikoa bada, nola da posible oraindik 2009ko murrizketen ondorioekin egotea, langileen egonkortasunerako planik gabe, familien parte hartzea baztertuta egotea... Hezkuntzan eraldaketa nahi badugu, hezkuntzan askoz gehiago inbertitu behar da. Gaur eguneko BPGaren %4 pirriko horretatik, UNESCOk proposatzen duen gutxienerako %6ra berehala egin behar da aldaketa. Bestela hitz politak eta ekintza gutxi izango dugu.
- **Hitzen ondoeza.** Terminologiari dagokionez gauza kuriosoak daude: hezkuntza-sistemaren erabiltzaileak, herrialde erronka, euskal hezkuntza-elkartea... Euskal Herriak bere hezkuntza behar du, burujabea.
- **Non daude Euskal Curriculum eta hezkuntza Hezkidetzaila?** Azkenik, ez dira eztabaidagai jartzen ez curriculum eta hezkidetzaren afera ere. Are eta gehiago, ez dira aipatu ere egiten testu osoan zehar. LABek Euskal Curriculum eta hezkuntza hezkidetzaila ezinbestekotzat jotzen ditu. Batetik, Curriculumaren bidez euskal kultura eta identitatea belaunaldiz belaunaldi transmititu zein erabakitzen joateko. Bestetik, bizi dugun jendarte patriarkarra gainditzeko hezkuntza hezkidetzaila sistemaren erdian kokatu behar da.

Zentzu honetan parte hartze sozial izugarriarekin egin zen Euskal Curriculuma eta hezkuntza eremuan erreferentzia bilakatu den Hezkidetza Gidaren baliagarritasuna aipatu nahi ditugu. Bi tresna hauen balioa handia izanik, Hezkuntza Sailak bi eremu hauetan duen hutsunea kontuan hartuta LABek bi dokumentu hauek erreferentzia gisa erabiltzea proposatzen du:

https://upload.wikimedia.org/wikibooks/eu/6/63/Derrigorrezko_Eskolaldirako_Euskal_Curriculuma.pdf eta https://issuu.com/ehbfeminista/docs/hezkidetza_lau_haizetara_egitasmoa. Era berean, ez dugu bi dokumentu hauekin totemik egin nahi, biak ala biak eguneratzea proposatzen dugularik.

Ikuspegi pedagogikotik "curriculumaz hitz egin gabe ezinezkoa da eraldaketa pedagogikoaz hitz egitea". Curriculumean zehazten da zer eta nola ikasi eta Espainiako Curriculuma onartzen badugu, onartzen ari gara Madrilek erabakitzea hemen zer eta nola ikasi behar den. Madrileren begiratzeari utzi behar diogu, Europa Iparraldean badaude ikuspegi pedagogikotik askoz hobekien diren ispiluak, Finlandia kasu. Eraldaketa pedagogikoa, metodologia hezitzaileen bidetik, kompetentzietan oinarritutako hezkuntzatik, azterketa memoristikoen eredu gaitzizetik, kalifikazio eta selekzio eredu kompetitiboa baztertu eta ebaluazioa hezitzailetik etorri behar da.

- **Metodologia desegokia.** Cristina Uriartek idatzitako sarrera honetan "Elkarrizketa, hausnarketa partekatua, akordioa" proposatzen dira, baina, atzean ez dago horretarako metodologia egokirik. Non dago gardentasuna, herri parte hartzerako bideen sustapena, ikastetxeen edota hezkuntza komunitatearen inplikazioa? Arlo honetan zorrotzak gara. Zehaztutako metodologia-tenpusak ez dira egokiak benetako hausnarketa eta adostasunak eraiki asmo dituen prozesu baterako. Oso tarte txikia egon da ekarpenak bideratzeko, LABek egindako bilera eskariak erantzunik gabe gelditu dira eta eragileek egindako ekarpenek ere ez dute erantzunik izan, eta hauek ez dakite ezta zein ibilbide izango duten ere.
- **Hezkuntzaren ikuspegi neoliberala.** Iñigo Urkullu Lehendakariaren hitzak sarrera honetan: "Gizarte batek ekonomia aurreratua nahi badu, hezkuntza sistema aurreratuan oinarritu behar da". Hezkuntza ekonomiaren zerbitzura, hezkuntza kapitalaren zerbitzura hori da nagusitzen den ikuspegia. Ikuspegi oso hertsia, administratiboa, burokratikoa, neoliberala, emaitzei lotuta, PISA iparorratz... Mundu mailan abian diren erreforma neoliberalen logika nabari da sarrera honetan, dagoena justifikatuz eta mundo mailan eskumak erabiltzen dituen neurgailuak helburu gisa jarritz.

LAB-EN HEZKUNTZA AKORDIO BATERAKO ARDATZAK ETA NEURRIAK

Gure ustez, akordioak ondorengo ardatzen gainean errotua beharko luke, neurri izar, neurri nagusi hauek bildu beharko litzuke parte hartze prozesu zabal batean oinarritutako Hezkuntzako Akordio on batek:

- **Inklusiorako plan integrala.** Eskola inklusiboa. Aniztasuna balioan jarri, segregazioak (jatorria, hizkuntzak, sexua) gaitzitzeko neurri eraginkorrak hartuaz.
- **Euskal Curriculuma.** Biharko Euskal Herria eraikitzeke tresna baliogarria dela deritzogulako. Euskal Curriculuma eguneratze eta aplikazioa sistema osoan. Euskal Curriculum oinarritzea eta komuna

abiapuntu.

- **Hezkidetza plana.** Parekidetasunean oinarritutako Euskal Herria sortzen laguntzeko plan integrala, mugimendu feministarekin elkarlanean eraikia.
- **Ikuspegi eta pentsamendu propioa.** Autoeraketa, jakintza unibertsala ikuspegi lokaletik.
- **Pedagogia askatzailea eta eraldatzailea.** Ez soilik duguna birsortzeko biharkoa eraikitzeko baizik.
- Pertsona aske eta kritikoak, ingurumena zaindu, jendartea ezagutu eta eraldatzeko ikasle zoriotsuak heztea helburu. Irakasle eskolen berrantolaketa.
- **Murgiltze eredu.** Ikasle euskaldun eleanitzak heziko dituen murgiltze eredu ezarri sistema osoan, euskararen normalizaziorako hezkuntza ereduak gaindituz. Kontseiluaren "Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen" dokumentua ardatz.
- **BPGren %6ko finantziazioa.** Hezkuntzaren finantziazioa publikoa ardatz, UNESCOk planteatutako BPGren %6 gutxienez. Kalitatezko hezkuntza publiko-herritarerako trantsiziorako gutxienezko neurri ekonomiko gisa.
- **Publikotasuna.** Euskal Publikotasuna adostu. Hezkuntza eskubideak eta burujabetzan oinarritutako publikotasun berrian eskola eta ikastetxe sare berriak adostasunez integratu.
- **Autonomia erreala.** Eskolen autonomia erreala: kudeaketa parte hartzailea, kontratazio eredu mixtoa (eskola-administrazioa) eta ikastetxeko hezkuntza proiektu propioan oinarritua. Baliabide askirekin lagundua.
- **Jantokitik jangelara.** Jangela eredu hezitzaile eta osasungarria.
- **Ebaluazioa hezitzailea.** Ikaslea erdigunean, autoebaluazio eta koebaluazioan oinarritutako eredu berria. Hezkuntza komunitatearen parte hartzearekin egindakoa eta hobekuntzara bideratua. Ikuspegi merkantilista eta fiskalizatzailea baztertuz.
- **Haur Hezkuntza.** Pertsonaren garapenerako etapa garrantzitsuena dela aitortu. Haur hezkuntza hezitzailea, euskalduna, publikoa eta doakoa izateko neurriak.
- **Goi Hezkuntza sistema propioa.** Unibertsitate Sistema eta Lanbide Heziketa propioa. Euskal Herriaren bizi iraupen eta garapenera bideratua, jendarte eta langile klasearen zerbitzura egongo dena.
- **Lan baldintza duinak.** Plantilla handitu, egonkortu, formatu eta ratioak txikitu. Bajak ez zigortu, erretiroa aurreratatu eta soldatak eguneratu/ekiparatu.
- **Burujabetza.** Hezkuntzan autogobernu osoa, kompetentzia guztiak, hezkuntza burujabea eta ikuspegi nazionala izango duena.

"HEZKUNTZA SISTEMAREN MODERNIZAZIOA"

"Hezkuntza eta Prestakuntza arloko Europa 2020" Planari jarraiki, Hezkuntza Sailak egindako proposamenak 4 puntutan ardatzen du "modernizaziorantz" egin beharreko aldaketa: irakasle ahaldundu eta prestigiatua, eraldaketa metodologikoa, teknologia berriak eta egitura eguneratzea. Ondoko lerroetan proposamen honen azterketa egiteaz gain, LABek bere alternatiben ardatzak aurkeztuko ditu.

Irakasleari giltzarri statusa aitortu nahi zaio. Testua irakurrita, irakasleriari egun baino zeregin gehiago jartzen zaizkiola ematen du, nolabait irakasleen gaitasunetan arazo guztiak konpontzeko giltza balego bezala. Egundakoa EAEko hezkuntza sistema zaharkitua gelditzearen ardura irakasleena izango balitz bezala aurkeztu zaigu,

hezkuntza administrazioaren ardura nagusia estaliz. Ardurak beti kanpoan bilatzearen jarrera hau, oso ohikoa da Hezkuntza Sailean eta ez dugu onartzen. **Gaur egun XIX. mendeko hezkuntza sistema dugu, XX. Mendeko irakasleekin XXI. mendean.** EAEko hezkuntzaren ardatzak XIX.mendean jarri ziren eta diktadura kontserbatzaile eta faxistaren aztarnak oraindik begi bistakoak dira: zentralizazio eta kontrolerako joera, eskola pribatu erlijiosoen indarra, pedagogia eredu zaharkitua edo emakumearen bigarren mailako rola besteak beste. Zentzu honetan, irakaslea izan da hezkuntzaren erdigunean, subjektua, protagonista nagusia eta orain, Europatik datozen haize berrietara egokitzeko arazoak omen ditugu. Irakaslearen rola aldatu beharra dago, ikasleak subjektu eta protagonista bilakatuz. Hala, irakasleek rol berrira egokitzeko zailtasunak aipatzen dira, eta guk ere ikuspegi hori konpartitzen dugu. Baina, nola egokitu rol berrira formazio egokirik gabe? Formatzeko denborarik gabe? **Nola garatu metodologia berriak baliabide ekonomikorik gabe? Plantillaren %40 behin behinekoa izanda? Edo ikasgeletako ratioak horren altuak direnean? "Modernizazioa" hitz polita da, baina inbertsiorik gabe, airean eraikitako gaztelua.**

Ingurunea ahaztu egiten da, familiak, taldekatzeak... Horretarako prestakuntza bikaina behar dela aipatzen du proposamenak, baina soilik irakasleentzat. Non geratzen dira gainontzeko langileak eta zergatik ez familientzako formazioa? Eta prestakuntza bikain hori Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako bakarrik zehazten da, bitartean bigarren hezkuntzako irakasleak ez dira irakasle eskolatan behar bezala formatzen. Hezkuntzaren ikuspegi hertsia du proposamenak. **Gure aburuz, hezkuntza prozesuan hezkuntza komunitate osoak parte hartu behar du** eskola eta etxearen artean, kalea eta eskolaren artean zubiak eraiki behar dira. Beraz, hezkuntzan modernizazioa lortu nahi badugu, familiak ere prozesu honetan inplikatu behar ditugu, modernizazioaren ikuspegi integrala landuz, metodologia berrien inguruan informatuz eta trebatuz, beraien seme-alaben hezkuntza prozesuan protagonista izan daitezen. Are gehiago, modernizazio prozesua eraldaketa prozesu gisa ulertzen dugunez, eskola eta herriaren arteko zubiak berreraiki behar dira **Herri Hezitzaileen norabidean.**

Ebaluazioaren ikuspegi merkantilista. Mundu zabalean "hezkuntzaren modernizazioa" kontzeptuaren atzean ikuspegi merkantilista hedatzen ari da, ebaluazioaren ikuspegi maltzur bati bidea irekiz, ebaluazioa irakasle eta ikastetxeen arteko kompetitibitateari lotuz. Ebaluazioa ez da puntu honetako gai nagusia, baina puntu hau argi utzi nahi dugu, LABek ez du onartuko ebaluazioa lehiarako tresna gisa erabiltzea, ez ikasle, ez irakasle ezta ikastetxeen artean ere. Ebaluazioa hezitzailea izan behar da, hezkuntza komunitatearen parte hartzearekin egindakoa eta hobekuntzara bideratua.

Argi dago orain arteko **eredu memoristikoa ez duela balio** izan, eta aurrerantzean eraldaketa metodologiko bakarraz ezin dugula hitz egin. Baina zer helbururekin egingo da aldaketa? Zer lortu nahi dugu? Zer dugu? Nola egingo dugu? Honek tokian toki erantzun ezberdinak izan ditzake; testuinguru ekonomikoa, hizkuntza... Behin egoera honen irakurketa egin ostean, helburuak argi izanik zehaztu beharko lirake eta ez alderantziz. Zeren eta Jaurlaritzak 2020ko Europara begira ari dela esaten du, baina hankak eta buruak XX. mendeko Espainian ditu. Ez du egoera gordinaren irakurketa erreala egiten. **Gaur eguneko marko juridikoaren barruan, Espainiatik datorren LOMCEren ikuspegiari Heziberriren bidez segidismoa eginez, ezinezkoa da metodologia aldaketa egitea.** Nola aldatuko da azterketa eta ikuspegi memoristikoa oinarritutako metodologia, errebalida berriak eta selektibitatea bezalako hautafrogez jositako ereduarekin errotik mozten ez bada?

Badaude gustuko ditugun helburuak: "eredu hau gauzatzeak eraldaketa sakona dakar, disziplinarartekotasunean lan egitea dakarralako batetik, eta hezkuntza komunitate osoaren ahalegin bateratua eskatzen duelako bestetik.

Ikaslea protagonista..." bilakatzeaz hitz egiten du. Ikastetxeen arteko sareak osatzea "Amara berri, ikaskomunitateak..." ere aipatzen du Hezkuntza Sailak. Zentzu berean, ongi ikusten dugu: "Irakasleen Unibertsitate Eskolak eta Hezkuntza Fakultateek... Hezkuntza-eredu pedagogiko berrira" egin beharreko eraldaketa. Hauek guztiak norabide onean egindako proposamenak iruditzen zaizkigu, baina, praktikara eramateko Hezkuntza Sailaren jokabidean erroko aldaketa beharrezkoa da eta egun horrelakorik ez dugu ikusten. Erroko aldaketa behar da, modernizazioak eskatzen duen ahalegina izugarria delako, baita formazioan eta baliabideetan ere. Nola egingo da erroko aldaketa hori Eusko Jaurlaritzak Hezkuntzan egiten duen inbertsioa ez bada %4ra iristen? Nola lortu ikastetxeek hezkuntza proiektu berrietan metodologia eraldaketa sakona egitea plantilaren ia erdia behin-behinekoa bada? Nola erantzun ikasle bakoitzaren beharrei irakasleko ratioak horren altuak direnean? Nola egin aldaketa formaziorako dagoen aukera eta denbora urriarekin? Proposamen hau egitean badirudi Hezkuntza Saila modernitatearen errealitate birtualean harrapaturik dagoela.

Modernizazioaren atal honetan, bada gai bat asko kezkatzen gaituena; 2 urteko maila Haur Hezkuntzako bigarren zikloan barne hartzea proposatzen du. 0-3 adin tarteko haurren garapena, beharrak... aintzat hartuta 2 urtekoak Haur Hezkuntzako 2. zikloan txertatzea egokiena da? Edo bestelako beharrei erantzuten die Geroz eta ikastetxe handiagoak izatera garamatza honek, baina honek ikasle zein tokian tokiko errealitateen aurrean erantzun egokiagoak ematea oztopatzen du, testu honek jasotzen duen "filosofiarekin" kontraesan handia ageriz.

Erabaki hau norekin hartu da? Zer ondorio izango ditu langilegoarengan? Familiengan?

Modernizazioa termino positibo gisa jasotzen da testuan, baina helburu eta arrazoitze bati erantzuten ez badio ezer ez esatea bezala da.

Hezkuntzan egiten diren aldaketak, egungo errealitateari erantzuteaz gain, etorkizunean nahi dugun jendarte eraikitzeke balio behar digu. Bestela, badirudi momentuko behar, krisi eta buruhausteei erantzun kosmetiko azkar bat ematera bideratua dagoela. LABen ustez aldaketak sakona izan behar du, egoeraren irakurketa erreala eginez, etorkizuneko hezkuntza sistema parte hartze zabalarekin marraztuz eta hau argi izanda, modernizaziorako proposamen zehatza eginez.

Modernizazioak berarekin pertsona aske, kritiko, eraldatzaile, feministak, euskaldunak... garatuko ditu? Gure ustez, modernizazioa ez da kapitalismoak dituen behar berrietara egokitzeko ariketa izan behar. LABen aburuz, Euskal Herriak, bertako herritarrek, hizkuntzak, kulturak, ekonomiak dituen eta izango dituen erronketarako egokitzeko egin behar da modernizazioa. Hezkuntzaren modernizazio honek, curriculumari ere eragiten dio, baina akordioan ez dago oinarri honen inguruko aipamen txikiena ere.

NEURRIAK

LABek ondoko neurri zehatzak proposatzen ditu EAEko eta Euskal Herriko Hezkuntzak behar duen modernizazioa gauzatzeko:

- **Parte Hartze prozesua.** Modernizazio kontzeptuaren eta helburuen argipenerako parte hartze prozesua.

Guk modernizazioa eraldaketarekin lotzen dugu.

- **Hezkuntza inbertsioa handitu.** BPGren %6ra iritsi arte gutxienez, UNESCOk proposatzen duen legez. Hezkuntza sistema modernizatzeko inbertsioa biderkatu beharra dago.
- **Ratioak murriztu.** %10 bereahalako neurri gisa. Hezkuntza sistema onenetan irakasleko 15-16 ikasle dituzte, eta behar berezi gisa kalifikatutako ikasleren bat badago 10. Horra hurbildu beharko ginateke.
- **Plantilak egonkortu.** Kalitatezko hezkuntza sistema izateko, modernizazioan urratsak emateko plantilla egonkorak behar dira. Ordezkoak gehienez %6 izan behar dira.
- **Plantillak handitu.** Hezkuntza eraldatze bidean modernizatzeko askoz langile gehiago behar dira. LABek eta gehiengo sindikalak 2.000 lanpostu gehiago sortzea proposatu du.
- **Formazioa.** Hezkuntza herri-erronka izan behar da. Lanean diren irakasle eta hezkuntzako langileak modernizazio teknologiko eta eraldaketa metodologikorako prestatu behar dira. Formaziorako askoz ordu gehiago eta plan hobek behar dira. Prozesuan gurasoak ere inplikatzeko hauek informatu-formatu beharko dira.
- **Irakasle eskolak eta sarbidea.** Irakasle Eskolak eraldaketa metodologikorako berrantolatu eta hezkuntzarako sarbidea berregokitu behar da, bigarren hezkuntzako irakasleak ere bokazio eta jarrera hezitzailea izan dezaten.
- **Azterketa eta kalifikazio binomioarekin hautsi.** Ikastea, ongizatea eta garapena helburu bada, azterketa, kalifikazioa eta selekzioa bideratutako hezkuntza baztertu behar da.
- **Esperientzia eredugarrietatik ikasi.** Europa Iparraldera begiratu (besteak beste, Finlandia, Estonia...) ikasi eta Euskal Herrira egokitu. Ikasgaika banatutako ereduak gaituzte, ikuspegi integrala, proiektu eta talde lanei bidea eginez.
- **Ikasleak subjektu eta protagonista.** Ikasleak erdigunean, aktibo bilakatu, erritmoak errespetatuz eta motibazioa landuz
- **Pedagogia eraldatu.** Pedagogia aktibo, kritiko eta askatzaileetara aldatu egin.
- **Merkantilizazioari stop.** Modernizazioaren ikuspegi merkantilista baztertu eta eraldaketarako bidea egin.
- **Modernizazioa vs arrakala teknologikoa.** Teknologia berrien inplementazioan ikasleen aukera berdintasuna bermatzeko neurriak, familia aberats eta txiroen arteko arrakala areagotzea ekidinez.

“BIZIKIDETZA”

Dokumentuan, egun gure jendartean aniztasun handiagoa dagoela adierazten bada ere, hau arrazoi etniko, linguistiko, kultural eta ekonomikoekin lotzen da. Dibertsitatea hortaz, elementu zehatzei lotuz eta eskola barrutian hezkuntza-premia pertsonalekin mugatuz.

Alta, aniztasuna aintzat hartzea inguratzen gaituzten pertsona guztiak diren bezalakoak onartzea bada, pertsona ororen beharrei erantzun beharko diogu, hezkuntza esparruan eta hezkuntza fase guztietan. Ezin dugu ahaztu erantzun horiek ezin direla barruti honetara mugatu, ez baita pertsonaren osotasuna kontuan hartzen, eta osotasun hori abiapuntu izan gabe ezinezkoa da erantzun integrala ematea.

Bestelako neurriekin lagunduta joan beharko dute. Oinarrizko zerbitzu publikoen eskaintza bermatu behar da, etxebizitza duin baten bermea, elikadura beharrak... eta hau guztiaren aurrean instituzioek dagokien ardurarekin jokatu beharko dute, eta hor hutsune nabariak daude. Gure ustetan, politika guzti horiek, era integralean garatuz izango dira eraginkorrak.

Horrela egiten ez den bitartean, txanponaren alde bakarra mahai-gaineratuko dugu eta pertsonaren heziketa prozesuak eskolako paretak gainditzen dituela baztertuko genuke. Hezkuntza prozesua integrala eta poliedrikoa dela defendatzen du LABek, eskola komunitate osoa barne bildu behar duela, eta eskola garrantzitsua izanik ere, heziketa prozesuaren atal bat besterik ez dela aitortu.

Kohesio soziala, ekitatea, ikastetxeetako desorekak gainditzea,... gisako kontzeptuak lantzen dira atal honetan. Ongi. Baina zein dira kohesio sozialik ezaren arrazoiak? Zergatik ez dago aukera-berdintasunik? Zergatik daude gero eta desoreka handiagoak ikastetxeen artean? LABen ustez, erantzuna argia da: **kapitalismoaren fase neoliberal honetan ezberdintasun sozialak areagotzen ari dira jendartean eta horrek eskoletan isla zuzena du (pribatizazioa, segregazioa, arrakala, desorekak,...)**. Gainera, hezkuntza duala, eliteentzako ikastetxeak eta txiroentzako eskolak, ez dira zerutik erortzen diren maldizioak. Honen atzean, mundu mailan eskumak antolatutako prozesu bat dago, eta **EAEren kasuan, dugun Gobernu neoliberalak bere hezkuntza politikaren bidez hauspotzen du**.

Bizikidetzaren atal honetan, hauts asko arrotzen ari da **segregazioaren** gaia, eta ez da gutxiagorako. Segregazio mota ezberdinak ditugu gure hezkuntza sisteman: sexu bidezkoa, hizkuntza bidezkoa, erlijiozkoa edo ekonomikoa. LABen ustez, guztiak erabaki politikoen ondorioz sortutako segregazioak dira, hala, erabaki politikoen bidez jarri daitezke gainditze bidean. Gure aburuz, segregazioak gainditzeko egoeraren irakurketarekin asmatu behar da, ondoren, eraginkorrak izango diren neurriak proposatzeko.

Ikasle bakoitzaren behar eta erritmoak. Bizikidetzaz ari garenean, eskola inklusiboa lortzeaz ari gara. LABen ustez, eskola ezin da homogeneo eta zurruna izan, horrelako eskolek, ikaslea behartzen dutelako eskola zurrun horietara moldatzera, homogeneousazioaren gupil zoroan harrapatuta gelditzen delarik. Zentzu horretan, Curriculum moldagarriagoa izateko aukera egokia izango da, hezkuntza etapa guztietan hala eginez gero. Curriculum ikaslearen erritmo eta beharretara egokitzen asmatu beharra dago, ikaslearen motibazioa zainduz eta garapena errespetatuz.

Gure ustez, haur bakoitzaren berezitasunak kontutan hartu eta ezaugarri horiek eskolako eguneroko jardueraren erdigunean kokatzen hasi beharko ginateke. Eta honekin ordutegiak, metodologiak, taldekatzeak, ratioak, langileen prestakuntza, espazioen antolaketa.... moldatu, prestatu eta eraginkortu beharko liriateke.

Hezkuntzako langileek lan baldintza duinak. Ez dago bizikidetzarik lan baldintza duinik gabe. Lan baldintza duinek eragin zuzena dute hezkuntza duinean. Horregatik plantilla handitu, egonkortu, formatu eta ratioak txikitu behar dira. Plantilaren zati handi bat ordezkua denean, ezinezkoa da ganorazko zerbitzu publikoa eskaintzea, are eta gehiago ikasgelak ikaslez leporaino beteta badaude. Horregatik ratioak berehala %10ean txikitzea eskatzen dugu, ikasle bakoitzarekiko arreta indibiduala ziurtatzeko prozesuan lehen pausu gisa. Era berean, gaixotzea eskubide bat denez, bajak ezin dira zigortu eta erretiro adina aurreratu beharra dago, plantilak gaztetuz.

Murrizketen ondorioz soldatak txikitu direnez, hauek eguneratu egin behar dira. Bereziki egoera kaxkarrean dauden hezkuntzako langileen lan baldintzak (sukaldari eta garbitzaileak, hezkuntza berezikoak eta haur hezkuntzakoak) irakasleenekin ekiparatu behar dira.

Bizikidetzaren, kohesioaren eta inklusioaren erronkak erpin asko ditu. Gure aburuz, kohesio elementu nagusietakoa euskara izan behar da. Katalunian ikusten ari gara, eskola inklusiboaren ardatz nagusietakoa murgiltze eredua bera dela. Hemen ordea, onartu beharra dugu instituzioen aldetik ez dela behar bezalako lanketarik egiten.

BIZIKIDETZA ETA INKLUSIOA BERMATZEKO NEURRIAK

- **Auzo-herri eskola inklusiboak.** Ikasle guztiei harrera egin eta euren behar espezifikoak jorratuko dituzten auzo eta herri eskola hezkidetzailleak, inklusiboak eta euskaldunak sustatu. Bertan, lehenetasunez inbertituko dira baliabide publikoak.
- **Murgiltze eredua.** Hizkuntza ez dadila segregaziorako arrazoia izan. EAEn murgiltze eredua legez eta berehala ezarri, A eta B ereduaren desagerpena orain. Eskolako hizkuntza eta kultur aniztasuna aitortu, zaindu eta balioan jarri.
- **Aniztasunaren araberako baliabideak.** Baliabide espezifikoak eta ratioak ikastetxe bakoitzean dagoen aniztasunaren arabera aplikatu beharko lirateke (aniztasun funtzionala, aniztasun sexuala, jatorri aniztasuna), aniztasun handiagoarentzat baliabide gehiago eta ratio txikiagoak ezarriz.
- **Segregazioaren mapa** egin, zuzendu beharreko egoerak identifikatzeko. Premiazko neurriak hartu, besteak beste: Segregazioa pairatzen duten ikastetxeetan baliabideak gehitu; Auzo-Herri Eskola bihurtzeko trantsizioa definitu. Plan sendo bat egin behar da ikastetxe segregatuak egoera horretatik ateratzeko, epeak ezarriz; Gasteizko Ramon Bajo Eskolan egin zen bezala.
- **Matrikulaziorako udal bulegoak** sortu, ikastetxe bakoitzaren inguruko informazio objektibo egokia emateko eta matrikulazio prozesuaren jarraipena egiteko. Eskola-mapa orekatua lortzea eta EAEn bizi diren herritar guztiei kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera-berdintasuna ziurtatzea helburu.
- **Aukera berdintasuna.** Errenta baxuko familiei aukera berdintasuna bermatu behar zaie, baita zentroa aukeratzeko aukera berdintasuna ere.
- **Ikasle guztien eskubideak bermatu** dira. Ikasle etorkinen kultura, izaera eta ohitura propioak errespetatu eta zainduko dira. Aniztasunaren trataera egokirako planak.
- **Proiektu elitista eta baztertzailerei STOP.** Hezkuntza-proiektu elitista eta baztertzailerei (sexua, jatorria, hizkuntzaren araberakoak) finantziario publiko gehiago ez ematea.

- **Derrigorrezko hezkuntza doakoa.** Eskubide unibertsala den aldetik, doakoa izan eta kuotak desagertzera jo beharko lukete.
- **Laikotasuna.** Laikotasuna bermatzea diru publikoarekin finantzatuta dauden zentro guztietan. Erljio katolikoa elementu bereizle gisa ez baliatzea.
- **Murrizketarik ez.** Hezkuntza publikoan eginiko murrizketak berehala bertan behera uztea, hezkuntza langileen egonkortasuna bermatuz.
- **Finantziarioa BPGren %6.** Atal honetako neurriak sinesgarriak izateko aurrez aipatu dugun gutxieneko finantziarioa bermatu behar da, eskola publikoetatik hasita eta aniztasun gehien dutenei arreta berezia jarritz.

“HIZKUNTZAK”

Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren proposamen aseptikoa alboratuz, LAB sindikatuak, murgiltze ereduaren aldeko apustua egin du ikasle euskaldun eleanitzak hezteko. Zentzu horretan, Kontseiluak 2008an aurkeztutako Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen proposamena babestu izan dugu, hezkuntza komunitateko gehiengoarekin batera (sindikatuak, guraso elkarteak,...). Kontseiluaren proposamenak Euskal Herriko ikasle guztiek euskaraz eta gazteleraz gutxienez B2 maila lortzeko balio du, ikastetxeko eguneroko errealitatek abiatuta, hezkuntza komunitateak berak adituen laguntzarekin osatutako proposamena delako.

Eusko Jaurlaritzaren Proposamena

Eusko Jaurlaritzak planteatzen dituen helburuekin ados gaude (B2 maila eskuratzea euskaraz eta gazteleraz, B1 ingelesez), baina egindako proposamenak neurri izarra falta du: murgiltze eta mantentze ereduak. Hizkuntza ereduak gainditu eta D ereduaren oinarritutako murgiltze zein mantentze ereduak ikasle guztiei aplikatu gabe, ezinezkoa da ikasleak euskalduntzea. 40 urtetako esperientzia metatua dugu eta mundu guztiak daki hori dela bide bakarra ikasleek, euskara maila egokia lortzeko. Gainera, murgiltze eta mantentze ereduarekin gazteleraz ere maila aurreratua lortzen dute ikasle guztiek (B2 maila) Euskal Herria zein Katalunia, Valentzia, Mallorca edo Galiziako esperientziak erakusten duten legez. Zentzu berean, D ereduko ikastetxeak dira, atzerriko hizkuntzan (ingelesean kasu gehienetan) emaitza onenak eskuratzen dituztenak. Beraz, aitzakiak gainditu eta egoerak eskatzen duen urratsa emateko garaia iritsi da, euskara ardatz duen murgiltze sistema da ikasle euskaldun eleanitzak hezteko tresna.

Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzak azken hamarkadetak egindako balorazioa autojustifikazio ariketa hutsa dela deritzogu. Ez ditugu zalantzan jartzen beraien datuak (1991tik 2018. urtera 16-24 tartean euskaldunak %25 izatetik, %71 izatera pasa dira), baina ez da kontuan hartzen euskarazko irakaskuntza lehenengo klandestinitatean

eta ondoren hezkuntza mugimenduaren bultzadaz hasi eta hazi zela. Ondotik, instituzioen inplikazioa ez da behar bestekoa izan, euskalduntzen ez duten hizkuntza ereduak mantentzeak (A eta B ereduak) ehunka mila gazteri euskara ezagutzeko eskubidea urratu zien (eta urratzen jarraitzen du), guztiek baitzuten euskara ikasteko gaitasuna, eta hala, euskalduntze prozesua bizkortzeko aukera polita galdu dela deritzogu. Are eta gehiago, Derrigorrezko Hezkuntza euskara ezagutu gabe amaitu duten herritar hauei guztiei, euskara ikasteko eskubidea urratu zaiela aitortu eta kaltetu legez, hizkuntza ikasteko erraztasun guztiak eman behar zaizkiela uste dugu: doakotasuna, eszedentziak,...

Era berean, uste dugu dokumentuan Jaurlaritzak egiten dituen gazteen euskara ezagutzaren proiektioak ez direla onargarriak. Dokumentutaren aurrikuspena da 2036an 16-24 urte bitartekoen %83k eta 20 urtetik beherakoen %90ek euskara ezagutu baina erabiltzeko zailtasunak izango dituela. Zergatik? Egoera eta helburu hauekin konformatu behar gara? Ez al da hizkuntza politika ausarta egiteko momentua? Helburu eder bezain lorgarria da 16 urteko ikasle guztiak epe motzean euskara maila txukuna eskuratzea, eta egunero euskaraz mintzatzeko gaitasuna bermatzea.

Eusko Jaurlaritzaren printzipio eta neurriak

Esan bezala, gutxieneko gisa, Eusko Jaurlaritzak proposatutako helburuak egokiak direla uste dugu (euskaraz eta gaztelaraz B2 maila eta ingelesez B1 lortzea). Baina, murgiltze eredurik gabe helburu hau lortu ezinezkoa da, finean, kasuen %30ean euskalduntzea lortzea ezinezko egiten duen egungo egoeratik, euskalduntzea lortzeko funtsezko aldaketarik ez duelako proposatzen.

Jaurlaritzaren proposamenean gehiago sakonduz, soinu ona duen literatura lagunduko duen neurri zehatz gutxi eta kontraesan gehiegi dakusagu. Adibide gisa "Euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleanitza" aipatzen da paragrafo batzuetan helburu gisa eta beste batzuetan dagoeneko eredu hau indarrean dugula baieztatzen da. Helburua edo errealitate da? Sistema izan behar da eleanitza edo ikasleak izan behar dira euskaldun eleanitzak? Gure aburuz, eta mundu zabaleko esperientzia guzti-guztiek hori adierazten dute, euskarazko murgiltze eta mantentze ereduak da ikasle euskaldun eleanitzak hezteko bidea. D ereduak ikasle guztiek gaztelaraz maila egokia bermatzen dienez, atzerriko hizkuntza bai, baina gaztelararen irakaskuntza goiztiarra ez da beharrezkoa, are gehiago, gaztelera ez da irakats hizkuntza izan behar, ikasgaia baizik.

Zentzu honetan ez ditugu ulertzen Jaurlaritzaren proposamenaren atal hauek: "Hiru hizkuntzak kurrikularrak dira; "Eskola eleanitzak eta hainbat hizkuntza irakasten dituzten eskolak" eta "diseinu curricularrean proiektu eleanitzak" sustatuko dira. Hau da, hiru hizkuntzatan irakatsi behar dela dio Hezkuntza Sailak. Zergatik? Zein oinarri pedagogiko edo metodologiko dago honen atzean? Ez dago, ez delako existitzen.

"Kanpotik etorritakoen hizkuntzak kontuan hartuta errealitate eleanitza" onartzen da eta aniztunaren "tratamendu egokia" aipatzen du. Eta gu erabat ados gaude. Guk proposatze dugun murgiltze ereduak, ikasle bakoitzaren ama hizkuntza errespetatu baino gehiago egin behar da, zaindu, landu eta balioan jarri, ikaslearen jatorria, hizkuntza eta kultura zaintzea aniztasunari zor diogun begirunea delako.

Helburuak lortzeko bidean "planak, epeak eta baliabideak zehazteko orduan ikastetxeen abiapuntuak eta ingurunearen egoera soziolinguistikoak oso ezberdinak direla kontuan hartu behar da". Pelloren egia, erabatekoa! Horregatik, ingurune ez euskaldunetan, hiriguneetan nagusiki, euskaraz behar den maila eskuratzeko ahalegin berezia egin beharko da, baita administrazioaren aldetik ere. Plan, epe eta baliabide hauek zeintzuk izango diren zehaztea dagokio orain administrazioari, ikastetxeek egindako hizkuntza normalizazio planak eraginkorrak izango badira, Hezkuntza Saialaren aldetik baliabide humano, ekonomiko eta formaziokoekin osatu behar direlako. Zentzu honetan, egokia iruditzen zaigu ebaluazioaren gainean txostenak esaten duena: "ikastetxeen eskuetan behar diren ebaluazio tresnak jarriko ditu" helburuak lortzeko "jarraipen iraunkorra" eta "emaitzen hobekuntzarako" tresna gisa.

Metodologia eta didaktikaren gainean ditugun hutsune nabarmenak aipatzen ditu txostenak, autokritikari tartea eginez. Era berean, "Komunikaziorako konpetentzia" "irakasleen talde lana" eta "hizkuntzen tratamendu integratua" gisako kontzeptuak nabarmentzen dira. Hauek, Kontseiluaren proposamenean ere jasotzen dira eta funtsezkotzat ditugu, irakasle eta hezkuntzako langileen lana eraginkorra izango bada. "Hizkuntzak ez direla ondo ikasten" aitortzen du eta "metodologia komunikatiboetan" ardaztutako hizkuntzen irakaskuntza hobesten du. Hala "konpetentzia komunikatiboa, bereziki euskararena, garatzearen ardura hizkuntzen irakasleetatik haratago", irakasle guztien ardura izan behar dela dio. Zentzu berean, ingelesaren garapena "metodologiaren garapena" eta "irakasle espezialisten gaitasunen garapenetik" etorriko da Jaurlaritzaren arabera, eta gu ere ados gaude, gainera, ingelesa edo atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarraren aldekoak gara.

"Gaztelarari dagokionez, D ereduan ere gaitasunen garapena" ez dagoela arriskuan aipatzen du dokumentuak, dena den, "metodologia komunikatiboan" sakontzeko beharra azpimarratzen da kasu honetan ere. Gu ere ados gaude, gaztelera irakasgai gisa eta metodologia komunikatiboetan oinarrituta irakatsi behar da, eta beronen eskurapenaren gainean ebaluazio hezitzailea egitea begi onez ikusten dugu, ikasleek gaztelaraz ere konpetentzia guztiak eskura ditzaten, gaur egun egiten den legez.

"Irakasleen gaitasuna hobetzeko neurriak hartuko dira, bereziki ingurune erdaldunetan bizi direnek ahozkotatuta landu eta C1+ maila eskuratu dezaten". Erabat ados gaude, konpromiso hau nola gauzatuko den ezagutzeko irrikitan.

"Eskola, familiak eta gizartearen arteko harremanak sendotu behar dira" eta "eskolaz kanpoko ekintzak eta aisialdia" euskalduntzeko beharra aipatzen da. Era berean "ikaslea, eskola, familia" triangulu sendoa osatzeko beharra azpimarratu eta guraso elkarteek euskalduntzean duten papera aitortzen da. Baieztapen honetatik tiraka, "Euskara kontzientzia apala" kezka iturri da "eta euskara hizkuntza gutxitua" dela landu beharreko kontzeptu gisa aipatzen da. Gure aburuz, Kontseiluaren proposamena aintzat hartuz, hainbat neurri beharrezkoak dira ikasleak euskara erabiltzeko gaitu eta motibatuzko: aisialdia eta etxeko giroa euskalduntzea; euskal kulturaren eta euskal curriculumean oinarritutako hezkuntza eskaintza egitea; euskararen minorizazio prozesua eta normalizatzeko beharra azaltzen duen oinarritzko soziolinguistika kontzeptuak transmititzea; etab.

LABek PROPOSATUTAKO NEURRIAK

Kontseiluaren Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen proposamena D ereduan oinarritutako murgiltze eredia da: <http://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2015/05/ikasle-euskaldun-eleanitzak-sortzen.pdf> . Eredu malgu izanda ere, oinarri nagusi batzuetatik abiatzen da. LABek ondoko 10 neurri zehatz proposatzen ditu ikasleak euskalduntzeko:

- **Murgiltze eta mantentze eredia** haur eskolatik derrigorrezko hezkuntza amaitu arte. Kontseiluaren "Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen" dokumentua eredu gisa hartuta.
- **Eskolaz kanpoko ekintzak euskalduntzearen beharra.** Euskara eskolako hizkuntza gisa erabiltzetik, eremu guztietan erabiltzeko, baita eremu informal eta aisialdian ere.
- **Irakasle euskaldunak.** Irakasle guztiak euskarazko maila aurreratua izan (C1 edo C2) eta hizkuntzen irakaskuntza komunikatiboan gaitzeko formazioa jasotzea.
- **Metodologia komunikatiboa eta irakasleen arteko elkarlana sustatu.** Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologia aurreratuetan formazio egokia jaso. Ziklo eta etapaka hizkuntzetako irakasleek koordinatuta lan egitea ezinbestekoa da.
- **Ingelesa edota Frantsesaren irakaskuntza goiztiarra** (Haur Hezkuntzatik hasita), eskolako hizkuntza plangintzan egoki ikusten bada. Gaztelera irakasgai gisa ematea lehen hezkuntzako hirugarren ziklotik (10-12) aurrera.
- **Ikasgelako ratioak murriztea eta ikasleak subjektu aktibo bihurtzea.** Hizkuntzak, bereziki euskara, komunikazio tresna gisa direlarik, testuinguru errealean erabilera sustatu.
- **Hizkuntzen ebaluazio iraunkorra,** aurrebaluazioa eta glotobiografikoa barne. Azken honek ama hizkuntza guztien trataera egokia izan dadin lagundu behar du
- **Ikasle bakoitzaren jarraipena.** Ikastetxe bakoitzak ikasle bakoitzaren hizkuntza konpetentzien ebaluazio hezitzailea egin, eta konpetentzia guztiak garatzeko neurri indibidualak ere hartzea.
- **Euskal Curriculum ari ardatz** euskara, euskal kultura eta identitateari lotuta ikastea. Euskara gutxiagotutako eta normalizazio bidean den hizkuntza gisa ikasiz, erabiltzeko motibatuz eta soziolinguistikaren oinarritzko jakintzak transmitituz.
- **Helburuak eta Europako estandarrekin homologazioak.**
 - Lehen hezkuntza amaitzean euskaraz eta gaztelerez (Hegoaldean) edo frantsesez (Iparraldean) B1 maila eskuratzea. Atzerriko hizkuntzan A2 maila
 - DBH amaitzean euskaraz eta gaztelerez (hegoaldean) edo frantsesez (iparraldean) gutxienez B2 maila eskuratzea. Atzerriko hizkuntzan gutxienez B1 maila

"EBALUAZIOA"

Hezkuntza Sailak kaleratu duen proposamenaren atal honek, aurrekoen eskema bera jarraitzen du:

Abiapuntua. Ebaluazioaren ulermena eta arrazoiketa aipatzen dira. Ebaluazioa nola ulertzen den eta bereziki, euskal hezkuntza sistema ebaluatzeko eredia nola ulertzen den. Irakuketa pedagogikokiari dagokionez, ikuspegi zientifiko neutroaren aldeko apustua egiten da. Ez da aipatzen ebaluazioaren testuingurua, ideologia zein funtzio politikoa, are gehiago LOMCE-Heziberriren oinarrietako bat ebaluazioaren afera izanik. Politikoki, hausnarketa

marko politiko honetan pentsatuta dago. Erreferentzia estatua da. Jaurlaritzarena ez da modu burujabea eta librean, mugak kontutan hartu gabe, egiten den ariketa.

Arrazoiak. Daudenak zein beste hainbat izan zitezkeen. Kontua ez da arrazoen balioa neurtzea eta eztabaida horretan katramilatzea. Ikuspegi orokorra da arazoa, "1" puntua alegia. Alta, kezkatzekoa da kanpo ebaluazioari ematen zaion garrantzia eta funtzioa. Eta honi loturik, adierazgarria da oso LOMCE-Heziberri ez aipatzea. Honen atzetik Hezkuntzako Plataformen Topaguneak (HPT) antolatutako eta familiek babestutako planto dinamika aipatu beharra dago. Planto dinamika aipatu beharrean 2012. urtea aipatzen da: "2012tik aurrera, kanpo ebaluazioen balio soziala galtzea eragin dute askotariko jarduerak. Kanpo ebaluazioaren egokitasuna eta baliagarritasuna arriskuan jarri da nolabait." Esaldi honek asko esaten du. Azterketa eredu inposatuaren aurka, eredu espainiar eta kapitalistan oinarritutako kanpo ebaluazioen aurkako dinamika kritikatzeko delako.

Erronkak. Aurreko logikari erantzuten diote. Modu deskriptiboan azaltzen dira eta ez propositiboan. Ados egon gintezke ideia orokorretan, alta, kanpo ebaluazioan egiten den diskurtsoa ez dugu konpartitzen. Erronkak printzipio nagusietan zehazten dira gehiago. Hemen, aurreneko puntuarekin bat egiten dugu osoki.

Saila ebaluatu. Dokumentuan ez dira aipatzen ebaluatu beharreko beste hainbat zerbitzu. Kasualitatez, sailak eskaintzen dituen zerbitzu, programa, kudeaketa eredu zein beste.

Ebaluatu beharreko eremuak: ikaslea, zuzendaritza taldea, irakaslea, sistema. Kontua ez da soilik zein esparru ebaluatu behar diren, nahiz eta sistemaren ebaluazioaz hitz egiten denean zehaztaperen gehiago behar den, baizik eta hauen elkar-ekintza. Eta hau ez da lantzen, esparru bakoitza modu isolatuan, atomizatuan hartzen da. Sinesgarritasuna galtzen du horrela.

Ikaslearen ebaluazioa. Ados gaude erabat atal honekin. Baina nola egiten da hori? Zein baliabide? Zein estrategia? Teorikoki ondo dago, baina lurra ukitzea falta zaio.

Zuzendaritza. Planteamendua irakurrita, galdera bat datorkigu burua: nor osatzen du zuzendaritza? Zuzendariak eta bere ondokoak? Ala baita mintegi buruek, programen arduradunek, zein bestek? Hau argitu ezean, modu gerentzia zale kutsu handia du.

Irakasleak. Ados gaude ebaluazioaren helburuekin, baita ere moduarekin, autoebaluazioa eta koebaluazioan oinarritutako eredu adostu behar da. Beti ere, ebaluazio merkantilista eta kutsu fiskalizatzailea duen oro baztertuz.

Sistema. Zehaztea falta da. Administrazioaren zerbitzuak, programak, etab. Hau da, esparruak zehaztu behar dira eta ebaluazioan ikasleek, ikastetxeek zein langileek eta familiek izango duten parte hartzea erabaki.

GABEZIA NABARIAK. Ez dira hezkuntzako langile guztiak aintzat hartzen. Ez da curriculum eztabaida jartzen. Ebaluazioaren beste esparru bat curriculum izan behar du ezinbestean. Aldian aldi curriculum ebaluatu, egokitu etb.

ALTERNATIBA: EBALUAZIO HEZITZAILEA DEKALOGOIA

1. Ebaluazioa eredu propioa. Ikaslea ikaste-irakaste prozesuan erdigunean kokatuz eta herri eta herritar gisa ditugun, eskubide, helburu, erronkak, nahi eta ametsak aintzat izanda ulertzen dugu guk ebaluazio eredu propioa. Hezkuntza sistema propioaren bidean ardatzetako bat izaki, bestelako eredu baten bidean urratsak emateko beharra agerikoa da. Hobekuntzan, ekitatean, aukera berdintasunean oinarrituta eta garrantzizkoa dena aurrera egiteko plan, neurri zehatzak eskainiko duena. Prozesu konplexua eta faktore anitzekoa izanik, ikasirakaskuntza prozesua osatzen duten eragile guztiok erabaki behar dugu zer, nola, noiz, nork, eta zertarako ebaluatu. Emaitzak aztertu eta honen ondotik, hobekuntza integralerako neurriak proposatzeko.

2. Ebaluazioaren helburua(k). Ebaluatzea ez da kalifikatzea. Ez da nota bat jartzea. Ebaluatzea ikaste- irakaste prozesuaren baitako elementua da. Autoebaluazioa eta koebaluazioa indartuz, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeaz gain, hauen zergatiak aztertu eta hobetzeko neurri hezitzaileak ezartzeko balio behar du. Ebaluaketak, irakaskuntza/ikasuntza prozesuarekin lotu nahi dugun xede hori ikasleak bereganatu ote duen erakutsi behar digu, hezkuntza ibilbide horretan urratutakoa eta urratu beharrekoa bistan jartzeko.

3. Barne-kanpo ebaluazioa. Gakoa barne ebaluazioa da. Merkatuen interesen arabera inposatutako ebaluazioak arbuaitzen ditugu. Beraz, kanpo ebaluazioak ez dira helburu. Alta, kanpo ebaluazioak modu orientatiboan eta askotan partzialetan bada ere, hainbat datu, joera adierazten dizkigu gure hezkuntza ereduaren osasunaz. Modu koherente eta arrazionalen inplementatutako dira eta ez dute balio akademikorik izango, rankingak ekidinez eta konfidentziasuna bermatua egonik, sistema hobetzera bideratuak egongo dira beti eta orientagarriak izango dira. Bide honetan, hautapropa eta baxoa gisako azterketak kendu behar dira.

4. Ikaslea ikaste-irakaste prozesuaren ardatza da. Ikasle bakoitza, bat eta bakarra da. Autorregulazioa helburu, bakoitzaren erritmo, gaitasun, testuinguru, berezitasunak ulertuz eta errespetatuz garatu behar da ebaluazioa. Modu integralean, gizakiaren hiru dimentsioak (psikologikoa, kognitiboa eta sozialak) aintzat hartuz, eta norbanako eta herritar gisa modu integral batean garatzeko tresna eta teknika anitzak erabiliz, eta hobekuntza terminoetan neurri hezitzaileak proposatuz. Irakasleak behatzailea eta bidelagun izan behar du prozesu horretan guztian.

5. Konpetentzietan ebaluatu. Hezkuntza osorako nahiz oinarritzko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira hezkuntza konpetentzia orokorrak, eta hezkuntza testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan, bai informaletan. Alta, hauek ez ditugu modu utilitaristan ulertzen. Konpetentzien formulazioak hezkuntzaren xedea beste modu batean ulertu eta planteatzeko bidea ematen digu. Hauek ebaluatzeko formazioa indartu, marko erreferentziala osatu eta tresnak, ereduak beharrezkoak zaizkigu. Era berean, metodologiak berrikusi, baliabide pedagogikoetatik hausnartu eta eredu pedagogiko berriak ezagutu eta inplementatzeko neurriak beharrezkoak dira.

6. Curriculumak. Curriculumak ortzi-mugarako bidea marrazten du. Euskaldunok, Euskal Herriaz ez ezik, munduaz dugun ikuspegiaren irudikapena da. Euskal Herrirako prestatzen den kultur ibilbidearen hautaketa da, hau da, Euskal Herriko ikasleek, gizabanako eta gizartekide gisa, beraien garapen osoa Euskal Herrian eta mundo zabalean bizitzeko konpetentziak lor ditzaten. Beraz, curriculumak etengabe ebaluatu beharreko atala da. Alta,

konpetentziak ikaste-irakaste prozesuaren ardatza badira, ez du zentzurik curriculumara irakasgaika eraikitzeak. Euskal Curriculumara berrikusi eta goiko gakoaren baitan eraldatzea proposatzen dugu.

7. Informeak aldatu, notarik ez. Ebaluazioaren baitan, honen emaitzak nola plazaratzen, transmititzen diren garrantzia du. Arlokako kalifikazio informeekin bukatu eta konpetentziak erdigunean kokatuz, hauen gaineko balorazioa, informea osatzea hobesten dugu. Honen osaketan, ikaslea eta irakaslea zein beste hezkuntza langileen parte hartzeaz eraikitzea proposatzen dugu. Ikaslea izan dadin bere garapenaren elementuak azaltzen dituen. Ikaskuntza esanguratsua oinarri.

8. Langileen ebaluazio hezitzailea. Autoebaluazio eta koebaluazio terminoetan egina. Hezkuntza komunitatearen parte hartzean oinarritua eta hobekuntzara bideratua egon behar da. Ikasleen ikaste-irakaste prozesuan eragin gehien dugun aldagaietako bat gara, baita hezkuntza kalitatean ere. Horretarako eta ezinbestean, lan baldintza egokiak bermatzea eta konfiantza eta prestigioa beharrezkoak ditugu. Ebaluazioaren bidean, garapenean hobekuntza arloak identifikatzen ahalbidetzen lagundu behar du. Hauek aztertu eta ikuspegi hezitzaile eta hobekuntza terminoetan laguntzak eta neurriak proposatu, beti ere, formazio klabeetan.

9. Ikastetxeen ebaluazioa. Ikastetxeen autonomian sakontzen, ikastetxeen ebaluazio ereduak garatzea beharrezkoa da ikuspegi pedagogikotik hobekuntza bermatzeko. Halako ebaluazioak ahalbidetu beharko litzuke koordinazio pedagogiko eta curricular hobeak, hezkuntza kalitatea eta familien eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta inplikazioa indartzera zuzendutako kudeaketa eraginkorra. Beti ere ikastetxe bakoitza bere testuinguruan kokatuz, rankingak ekidinez eta konfidentzialtasuna bermatua egonik.

10. Sistemaren ebaluazioa. Sistemaren adierazleak, programak, zerbitzuak, kudeaketa zein elementu nagusiak aldioro ebaluatzea beharrezkoa da hobetzeko neurriak zehaztu eta hezkuntza-politikarako erabakiak hartzeko oinarri bat izateko. Horren harira proposatzen dugu, Sistemaren ebaluazio-eredua zehaztea, marko orokorra osatzea alegia.

IKASTETXEEN AUTONOMIA

EAEko HEZKUNTZA AKORDIORAKO oinarrietako bat autonomia da. LABen ustez ikastetxeetatik egiten den aldarrikapenari erdizpurdizko erantzuna ematen zaio. Hezkuntzan autonomiaren beharra asko zabaltzen den ideia den arren, zer nolako autonomia definitu gabe, hutsala izan daitekeen terminoaren aurrean egon gaitetzke. Are gehiago, autonomia garatzeko formazio eta baliabide egoki gabe, ikastetxeen arteko aldeak areagotu egingo dira. Beraz, LABek termino hau jantzi eta alternatiba propioa eraikitzeko gogoetarako honako ardatzak mahaigaineratu nahi ditu.

XXI. mendeko ikaslea. Egungo hezkuntza ereduak XXI. mendeko ikasleari erreparatu behar dio, aldiz gure herrian egun aplikatzen diren hezkuntza sistemek XIX. mendeko eskola ereduaren dute oinarria.

Menpekotasuna. Euskal Herria bi estatuek inposatutako hezkuntza sistemaren baitan garatzen da. EAEko hezkuntza sistemak Espainiako estatuko araudia jarraitzen du zehatz-mehatz. Hortaz, herri burujabea ez garen heinean, utzitako eskumenen baitako erabakiak har daitezke.

Testuinguru aldakorra. Testuingurua aldatzen dago; teknologia berrien areagotzea, aniztasuna, lan munduaren aldaketa, lan baldintzen okertzea, globalizazioa, uniformizazioa... Hartara herri gisa erronka bikoitza dugu. Batetik, hezkuntza XXI. mendean jendarteak dituen erronketarako egokitzea. Bestetik, etorkizuneko euskal herritarrek hezi behar ditugu, hizkuntza eta kultura jakin batean sortutakoak.

Autonomia eta parte hartzea elkarloturik. Egun LOMCEk ezarritakoa parte hartzea dugu, baina aurreko eredu parte hartzaileak ez ziren nahikoak ezta ere. Espazio eta denbora zehaztutara mugatzen den parte hartzeaz hitz egiten dugu, baina hezkuntza eta bere beharrak dinamikoak badira parte hartzeak ere honi erantzun beharko dio. Administrazioak erabakitzen du zer, nola eta noiz; eskolari berau aplikatzea dagokio. Jaurlaritzaren proposamenaren arabera zuzendaritza izango da berau bermatzeko bitartekoa. Are gehiago, ikastetxeko zuzendarirengana zentratutako autonomia eredu gerentzialistarako joera nabari da.

Herri Hezitzaileak. LABen ustez Autonomia parte hartzearekin lotuta egon behar da. Herri hezitzaileen filosofiaren norabidean eskola komunitate osoa hezkuntza prozesuan integratuz eta auzo-herriarekiko zubi sendoak eraikiz.

Autonomia garatzeko langilegoaren egonkortasuna bermatu ezean, hutsaren hurrengoa izango da. Egiturazko arazoan aurrean egongo gara ez bada aurrez plangintza bat egiten, eta plangintza horrek nahi eta ez estatuarekin konfrontaziora eramango gaitu. Estatu mailako lege organikoak, dekretuak, paktuek zeharo baldintzatzen dutelako. Esaterako; curriculum orokorraren aplikazioa, lekualdatze lehiaketa....

Jangeletako eredu berri baterantz. Autonomiaren garapena bilatzen badu Eusko Jaurlaritza badu lehen urrats praktikoa bat: Jantokitik jangelarako aldaketa egitea. Eskolek jangelaren ardura hartu dezaten erraztasuna jarri eta neurriak hartu, jangelak gune hezitzaile eta osasungarriak izan daitezen, lehen sektoreari, ekonomia lokalari eta elikadura burujabetzari bide eginez:

http://www.lab.eus/materiala/artxiboak/ZerbitzuPublikoak/jangelak/JANGELAK_eu.pdf

Autonomia, formazioa eta finantziarioa. Hasieran aipatu bezala, EAEko hezkuntzak hutsune handiak ditu eta ikastetxeen arteko aldeak eta arrakalak areagotu egin dira. Ikastetxe askok, nagusiki zenbait publikok erronka bereziak dituzte, besteak beste jatorri anitzeko ikasle asko hezteak. Ikastetxe hauek behar espezifikoak dituzte: irakasleen formazioa, proiektuetarako laguntzak, perfil berezietako langileak... Dituzten erronkak gainditzeko autonomia tresna garrantzitsua da, beti ere ikastetxeak dituen behar hauek asetuta. Beraz, autonomia formazio eta finantziario egokiarekin lagundu behar da, ikastetxeen arteko arrakalak ez areagotzeko.

Autonomia erreala lortzeko LABen neurri zehatzak:

- **Ikastetxeko hezkuntza proiektua.** Hezkuntza proiektu propioa egin eta garatzeko eskubidea. Europako hezkuntza sistema erreferenteetan, eskola bakoitzak curriculumaren %90 definitzen du, autonomia pedagogikoa aitortuz.

- **Ikastetxe sareak.** Gainontzeko eskolekin saretzeko eskubidea izatea. Proiektu edo erronka antzekoak dituzten ikastetxeen arteko sareak eta elkarlanak sustatu.
- **Kudeaketarako autonomi integrala.** Irakasle perfilak eskatu eta kontratazioak egiteko, gardentasun irizpideak zainduz eta administrazio publikoekin elkarlanean. Ordutegiak eta lan egutegia zehazteko autonomia.
- **Parte hartzea.** Eredu gerentziala gainditu, eskola komunitate osoa inplikatu, Herri Hezitzaileen bidean auzo-herriarekin zubiak eraiki.
- **Formazioa.** Zuzendaritza Hezkuntzako langile guztiena eta gurasoena. Zuzendaritza hezkuntza komunitatearen parte hartzearekin hautatu eta 3-5 urtetarako aukeratzea proposatzen dugu, egonkortasuna zainduz.
- **Irakasle eskolen eta hezkuntza sarbidearen berrantolaketa.** Irakasle guztien (baita bigarren hezkuntzako ere) goi mailako prestakuntza ziurtatuz: psikopedagogia, soziopedagogia, metodología berriak, haurren eskubideak, euskal curriculuma edo praktika garaiari arreta berezia eskainiz besteak beste.
- **Langileen egonkortasuna.** Komunitate sendo, kohesionatu eta ilusionatua osatzeko. Langileak hezkuntza proiektua egiten eta gauzatzen parte hartu behar du lan baldintza duinak zainduz.
- **Jangeletako eredu berri baterantz.** Jangela modu autonomoan kudeatzeko eskubidea eta baliabide egokiak. Jangela propioak, hezitzaileak, osasungarriak sortu eta garatzeko baliabideak.
- **Autonomiarako araudi propioa,** Espainiako legediarekin kateak hautsiz. LOMCE legearen bidez egun autonomiaren inguruko lege autonomikoak ezin dira gauzatu, are eta gehiago autonomia mailan sakondu.

ERREFERENTZIAZKO TXOSTENAK

Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculuma:

https://upload.wikimedia.org/wikibooks/eu/6/63/Derrigorrezko_Eskoladirako_Euskal_Curriculuma.pdf

Ebaluazio Hezitzailea Iruten :

http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2018/02/1518165488-EbaluazioHezitzailea.pdf

Hezkidetza gida: https://issuu.com/ehbfeminista/docs/hezkidetza_lau_haizetara_egitasmoa

Hik Hasiren Hezkuntza Proposamena: http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2018/03/1520000838-Hezkuntzaproposamena.pdf

Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen:

<http://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2015/05/Ikasle-euskalduneleanitzak-sortzen.pdf>

Jangela eredu propio bateratz:

http://www.lab.eus/materiala/artxiboak/ZerbitzuPublikoak/jangelak/JANGELAK_eu.pdf